

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

2024ko uztailaren 24ko Alkate Dekretua, oporraldian eskumenak eskuordetzeari buruzkoa

Zinegotzi ordezkarietara eta zuzendarietara eskumenak eskuordetzeko alkate dekretuetan eta udal antolakuntzaren inguruko gainerako araudian xedatutakoa ikusi da.

Kontuan hartu da udako oporraldian atsedenaldian dauden zinegotzi ordezkarien zereginak bete beharra dagoela, administrazio-jarduera gelditu ez dadin.

Kontuan izanik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak alkatearen gain uzten dituen ahalmenak, besteak beste bere eskumenak eskuordetzea, 124,5 artikuluan jasotzen denez,

Horrenbestez, hau

Xedatzen dut

Lehen xedapena. Eskuordetzearen bidez alkatezari dagozkion zereginak betetzen dituzten zinegotzi-ordezkariak absente badira, oporrak direla eta, zeregin horiek atzera alkatearen esku uztea, edo oporraldian haren ordezkari den alkateordearen esku.

Azken xedapena. Datoren egunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 24an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA